

## Plan Estrategiko berria

Pertsonetiko eta hauskortasun sozialarekiko  
konpromiso berria

Ezgaitasuna  
duten *pertsonen*  
laguntzeko legea

**'BaTuran'**  
adineko pertsonen  
hauskortasun sozialari  
aurre egiteko tresna

**Zerbitzu orokorrak**

Morlans, 13 behea  
20009 Donostia  
Telefonoa 943 468 956  
idazkari@hurkoa.eus

**Laguntza-neurriak**

Morlans, 13 behea  
20009 Donostia  
Telefonoa 943 468 956  
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola Pasealekua, 16  
20006 Donostia  
Telefonoa 943 468 956

Ferrerías, 32 behea  
20500 Arrasate  
Telefonoa 943 770 938

Geltoki, 7  
20301 Irun  
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea  
20720 Azkoitia  
Telefonoa 943 468 956

Emeterio Arrese, 2  
20400 Tolosa  
Telefonoa: 943 468 956

**Eguneko Zentroa**

Ntra. Sra. de las Mercedes  
Nafarroa hiribidea, 31  
20013 Donostia  
Telefonoa 943 293 111  
cdmercedes@hurkoa.eus

# AURKIBIDEA

Gure jarduera 2022an [\\_3](#)  
Presidentearen gutuna [\\_4](#)

Hurkoaren Plan Estrategiko berria [\\_6](#)

Pertsona ezgaituei  
laguntzeko legea [\\_8](#)

**Eguneko Zentroa**  
Familiatzako funtsezko laguntza,  
baita asteburuetan ere [\\_10](#)  
Eguneko Zentroa: zifrak [\\_11](#)

**Haukortasuna**  
'BaTuran', partekaturiko tresna [\\_12](#)

**Boluntarioritza** [\\_14](#)

**Hurkoa Berriak**  
Hurkoa eta Aubixa [\\_16](#)  
Hurkoa eta Lahar Elkargoa, Azkoitia [\\_17](#)  
Hurkoa Gipuzkoa Zainduz foroan [\\_17](#)

**Elkarrizketa**  
Catalina Pedrero,  
ezgaitasunaren fiskal delegatua [\\_18](#)

*"Legeak aitortzen dizkien aukerak bermatu behar  
zaizkie ezgaitasuna duten pertsoneri eta haien  
izatezko zaintzaileei"*

**Gure aliantzak**

# Hurkoa 2022an

## ARTATUTAKO PERTSONAK



LAGUNTZA-NEURRIAK 593

### EGUNEKO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera **88**  
Asteburuan **53**

### HAUSKORTASUNA 32

Hauskor programa: **61**

## PROFESIONALAK 69



## PERTSONA BOLUNTARIOAK 81



## FINATZIAZIOA

### Hurkoa Zainduz

Diru-sartzeak 1.349.401,56€

Gastuak -1.424.230,19€

Defizita -74.828,63€

### Laguntza-neurriak

Diru-sartzeak 1.421.640,88€

Gastuak -1.526.147,94€

Defizita -104.507,06€

### Hauskortasuna

Diru-sartzeak 112.238,32€

Gastuak -182.707,55€

Defizita -70.469,23€



## NON GAUDE

Irun  
Donostia  
Tolosa  
Azkoitia  
Arrasate



# *Etorkizunari*



# ilusioz begiratzen

Gure memoria aurkezteko lerro hauek prestatzen ari nintzen bitartean, komunikabideek Osasunaren Mundu Erakundeko zuzendari nagusiak COVID-19 nazioarteko osasun-larrialdiaren amaiera deklaratzeko erabakia iragartzen zuten. Hori, aldi berean, hain urrun eta hain presente iruditzen zaigu...

2022. urtea pandemia honek markatu du, gure jarduerari eragiten jarraitu baitu, baina aurreko urteetan baino eragin txikiagoarekin. “Nuestra Sra. de las Mercedes” eguneko zentroko erabiltzaileak izan dira egoera horren ondorioak gehien bizi izan dituztenak; izan ere, urteko azken hilabeteetara arte itxaron behar izan genuen aparatuko prebentzio-neurriak leuntzen hasteko.

2022 urtean baita ere 8/2021 Legea, 2021eko irailean indarrean sartu zena, hasi zen aplikatzen desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena. Lege horretatik aurrera, kuradoretzak adineko pertsonen eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonen tutoretza ordeztu du, eta aldaketa nabarmenak egin dira ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurrietan. Legeikuspegi berri horretara egokitzeko ahalegin gehiago egitera behartu gaituzten aldaketak.

Gainerakoan, 2022. urtean lorpen garrantzitsuak izan dira Hurkoaren bizitzan. Batetik, gure Patronatuak 2023-2026 Plan Estrategiko berria onartu zuen, gure lan-ildoak eta etorkizun hurbilerako erronkak ezartzen dituena. Eta bestetik, zenbait urtez akordiorik lortu gabe egon ondoren, Gipuzkoako Egoitzen eraginkortasun mugatuko hitzarmenak aukera eman du Hurkoa Zainduzko langileen soldata baldintzak hobetzeko.

2022an, Deustuko Unibertsitatearekin eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin “BaTuran” tresna amaitu dugu, adineko pertsonen hauskortasun soziala neurtzen duena. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, gure eguneko zentroaren arretarekin zuzeneko zerikusia duten bi proiektu gauzatu ditugu: “Habitus” proiektua, gerokultoreek erabiltzaileei ematen dieten arretaren kalitatea neurtzen duena, eta “BabeSarea” proiektua, Matiarekin batera, Gipuzkoako eguneko zentroetara joaten diren pertsonen eta haien zaintzaileen beharrei buruzkoa, bereziki, ezin direnean joan.

Guztiontzat delikatua den eta Hurkoako hiru jardueraren eremuei eragiten dien egoera ekonomiko zail honetan, gure esker ona, lehenik eta behin, Hurkoako langile, talde eta boluntarioei zuzentzen diegu, hainbeste ezbeharrei aurre egiteko ahalegin handia egin dutelako. Era berean, laguntza eman diguten pertsona eta erakunde guztiei, gure sortzaileari, Elizbarrutiko Cáritas eta Euskadiko Kutxari, eguneko zentroko erabiltzaileak garraiatzeko mikrobus berria erosten laguntzeagatik.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, “Laguntza-neurriak” eta “Eguneko Zentroa” arloen finantzaketa arruntari, 2022an, aipatutako “Habitus” eta “BabeSarea” proiektuen diru-laguntza gehitu dio, bai eta eguneko zentroko eraikineko leihoak eta beirateak aldatzeko obra ere, ingurumen-baldintzak hobetzeko.

Azken lerro hauetan, erronka berriei aurre egitera bultzatzen gaituen ilusioa nabarmendu nahi dut; izan ere, azkenean, pandemiaren eragina alde batera utz dezakegu, horren ondorioak oraindik ere alderdi askotan ditugularik. Hurkoaren Plan Estrategiko berriak asko egiteko dugun etorkizunera bideratzen gaitu.

Mila esker bihotzez!”



**José Luis de la Cuesta**  
Hurkoa eta Hurkoa Zainduzko presidentea

## Plan Estrategiko berria

# Pertsonetikiko eta hauskortasun sozialarekiko konpromiso berritua

**2023-2026 eperako Plan Estrategiko berria diseinatu du Hurkoak, pertsonarengan arreta jarri eta gizarte-hauskortasunaren beharrei aurre egiteko. Hainbat eragile eta erakunderen parte-hartzea gehitu duen ikuspegiarekin, Hurkoak eskaintzen dituen laguntza-zerbitzuak indartu eta aurreko egoerarekin alderatuta aldatu den garai berri baten beharretara, egokitu nahi ditu planak.**

Egungo erronkei egokitzeko eta laguntza eta arreta behar duten pertsonen kalitatezko arreta eskaintzen jarraitzeko ahaleginean, Hurkoak Plan Estrategiko berri bat garatu du, bere jarduerari jarraipena eman nahi diona, baina desberdintasun batzuk azpimarratuz. Helburu nagusia pertsonen oinarritutako arreta-eredurantz (ACP) aurrera egitea da, gizabanako bakoitzak bere beharren eta lehenetasunen arabera zaintza indibidualizatua eta errespetuzkoa izango duela ziurtatuz.

Gainera, planaren lehentasunezko helburuetako bat gizarte-hauskortasunari heltzea da, adineko pertsona askori eragiten dien arazoa. Horretarako, Hurkoak bere Hauskor programa —gaur egun Pasaian eta Arrasaten ezarria— Gipuzkoako beste udalerririk batzuetara zabaltzen saiatuko da, egoera zaurgarrian dauden pertsonen laguntzeko. Ildo horretatik, gizarte-hauskortasuna neurtzeko BaTuran tresna erabiltzen bada, pertsona horien beharrak modu eraginkorragoan identifikatu eta artatuko dira.

### Egoera berria

Hurkoako zuzendariak, José Ignacio del Pozok, Plan Estrategiko berri honen garrantzia honako honetan kokatzen du: “erronka al-dakorretara egokitzeko eta adineko pertsonen kalitatezko arreta eskaintzeko egindako hausnarketa-prozesuan, haien beharrak modu pertsonalizatuan eta beren borondatearekin errespetuz erantzungo direla ziurtatuz”. Testuinguru horretan, Del Pozok onartzen du “azken urteak bereziki korapilatsuak eta zailak izan dira pandemiaren ondorioz sortu eta larriagotu diren egoerengatik”, eta aitortzen du “gauza asko aldatu dira eta era guztietako behar eta egoera berriei erantzun behar diegu”.

Plan Estrategiko berriaren garapena prozesu parte-hartzailea eta aberasgarria izan da. Hurkoak funtsezko aktore guztien ahotsa bildu nahi izan du, plantillatik hasi eta boluntarioraino, patronatutik pasatuta. Lehen aldiz, arreta jaso duten pertsonen eta haien familiei ere egin zaie kontsulta, beraien ikuspegiak eta esperientziak ere ezagutzeak duen garrantzia onartuz.



Beste gizarte-erakunde askotan bezala, egoera ekonomikoa erronka handia izan da Hurkoarentzat pandemiaren ondorioz. Arazo horri aurre egiteko, Plan Estrategikoak egoera ekonomikoa berbi-deratzeko mekanismoak biltzen ditu, zerbitzuak mantendu eta egoera aldakorretara egokitzeko.

### Malgutasuna eta egokitzapena

Planteatutako helburuen lorpenaren arrakasta neurtzea funtsezkoa da. Horregatik, Plan Estrategikoak urtero berrikusiko diren adierazle espezifikoak ezarri ditu, helburuak lortzea eta betetzea bultzatzen duten ekintzak doitu eta indartzeko.

Hurkoa, bere Plan Estrategiko berriarekin, laguntzen dien pertsonen ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin konprometitutako erakunde gisa kokatzen da, arreta pertsonalizatua emanez eta gizarte-hauskortasunaren erronkei aurre eginez. Instituzioekiko eta bestelako

erakundeekiko lankidetzaren bidez, Hurkoak erreferente izaten jarraitu nahi du laguntza behar duten pertsonen zainketan eta arretan, etengabe aldatzen ari den ingurunera egokituz.

**“Hurkoak eutsi egiten dio gizartearen behar gero eta handiagoei aurre egiteko lankidetzareta talde-lanerako konpromisoari”**

Hurkoako Plan Estrategiko berriak bere barne-prozesuetara eta erakundearen eta haren jarduera bultzatzen duten pertsonen kudeaketara zuzendutako gunea ere badu. Alde horretatik, arreta berezia jarri nahi da langileen garapen pertsonal eta profesionalean eta boluntarioak motibatzean eta erakartzean.

Antolakuntzaren ikuspegitik, halaber, erronka berriak aipatzen dira kudeaketa iraunkorreko eta eraginkorreko eredu bat finkatzeko, beste erakunde batzuekiko aliantzak indartzeko eta Hurkoaren inguruan mugitzen diren pertsona guztien bizi-kalitatea eta arreta-beharrak hobetzeko aukera emango duten berrikuntza sozialeko programetan eta teknologia berrietan parte hartzeko

## ARRETA ARLOEN ERRONKA NAGUSIAK

### Gizarte-hauskortasuna

- Adineko pertsonen Gizarte-hauskortasunaren programa identifikatu, ebaluatu eta finkatzea, eta Gipuzkoako presentzia indartzea.
- BaTurán tresnaren erabilera sustatzea
- Hauskor programa zabaltzea
- Hauskor programatik kanpo gizarte-egoera hauskorrean dauden pertsonentzako arreta eta laguntza sendotzea

### Eguneko zentroa

- Pertsonarengan Oinarritutako Arreta-Eredua (POA) ezartzen aurrera egitea
- Zerbitzuen eskaintza herritarren behar gero eta handiagoetara eta askotarikoe-tara bideratzea:
  - Mendekotasuna atzeratzea
  - Hauskortasuna leheneratzea
  - Familiei etxean laguntzea, zainketen jarraipena bermatuz

### Laguntza-neurriak

- POA ikuspegiari jarraiki eta lege berrira egokitutako zerbitzua eskaintzea
- Familientzako informazio- eta laguntza-zerbitzuak zabaltzea, lege-erreformaren ondoren

## Desgaitasuna duten pertsonak laguntzeko legea

# Arazoak egunez egun hazten dira

**Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzean laguntzeko lege-erreforma egin eta bi urtera, legea aplikatzea uste baino konplexuagoa da. Ikuspuntu profesionaletik eragindako pertsona edo erakunde guztiak (epailetza, fiskaltza, gizarte-zerbitzuak, laguntza-erakundeak...) egunerokotasunean “ikasi” behar dute. Errealitateak agerian utzi ditu sumatzen ez ziren arazoak. Zer oztopo daude oraindik eta nola gaindi daitezke?**

Arazoei aurrea hartzen saiatzeko ahalegin handiak egin diren arren, lege berria egunerokoan aplikatzeak uste-kabeko oztopoak ekarri ditu. Eredu-aldaketak ezgaitasuna kentzea eta laguntza-sistema bat ezartzea ekartzen duena, konplikazioak eragin ditu alderdi formalagoetan, hala nola txosten sozialak egitean, beharrezko berrikuspenetan eta prozedura judizialeetan.


Susana Montesinok, Hurkoako Laguntza Neurrien arloko arduradunak, aitortzen duenez, “praktikak sumatzen ez genituen arazoak erakutsi dizkigu”. “Hasierako zailtasun horietako batzuk gainditu diren arren, erronka handiagoa bihurtu da gizarteko beste esparru batzuk laguntza-neurri berriak ulertzea -erantsi du. Banketxeek,

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (GSIN) eta Ogasunak, besteak beste, egokitzapen falta nabarmena erakutsi dute, batez ere legeria berria ez jakitegatik. Bistan da, gaian zuzeneko eragina duten zirkuluetatik kanpo, gizarteak, oro har, ez dituela ezagutzen lege-aldaketa horien ondorioak”.

### Finantza-esparrua

Finantza-sektorea ez da azkar ari aldaketa berrietara egokitzen. Finantzen esparruan, legeria berriaren aplikazioa bereziki konplexua bihurtu da. Bi arrazoi nagusik sortzen dituzte arazoak: batetik, lege-erreforma ez ezagutzeak, eta, bestetik, banku-erakundeen sistemak eta protokoloak laguntza-neurri berrien eskakizun praktikoetara ez egokitzeak.

Eta horrek zer esan nahi du? Laguntza behar duten pertsonen eragiten diela zuzenean. Ikusten ari garen arazorik ohikoena izatezko zaintzaileak aurkitzen ari dira babesten duten pertsonarentzako administrazio-kudeaketa arruntak egiten saiatzen direnean. Baina larrinenak izaera asistentziala duen kuradoretza den neurri judiziala praktikan jartzean aurkitzen ditugu. Neurri horietan, desgaitasuna duen pertsonak bere kabuz kudea







egiten duenaren gainbegiratzearekin. Banketxeak ez dira horrelako egoereta-rako prestatu, eta desgaitasuna duen pertsonari zuzenean eragiten dioten arazo larriak sortzen ari dira.

Laguntza behar duten pertsonentzako zailtasunez gain, zerbitzuak ematen dituzten Hurkoa bezelako erakundeek ere oztopoak dituzte. Kasu eta laguntza-neurri ugariak arazoak sortzen dituzte judizialki agindutako neurriak gauzatzeko, banketxeek ez baitituzte beren sistemak eta protokoloak egokitu aldaera horiei guztiei ekiteko.

Egoera hori gainditzeko, Susana Montesinoren iritziz, “ezinbestekoa izango litzateke finantza-entitateekin komunikazio handiagoa izatea eta baita ere finantza-sektoreko profesionalak desgaitasuna duten pertsonak beraien gaitasuna egikaritzean aplikagarria den legediaren aplikazioari buruzko formakuntzan barneatzea”.

## Hurkoak bere esperientzia aurkeztu du Estatuko Fiskaltza Nagusian

Desgaitasunean adituak diren berrogeita hamar bat fiskalek, banketxeetako aholkulariek eta Espainiako Bankuaren ordezkariak duela hilabete batzuk bildu ziren Estatuko Fiskaltza Nagusiak antolatutako egitatezko zaintzari eta bestelako laguntza-neurriei buruzko ikastaro batean. Susana Montesinok parte hartu zuen topaketan, Legea aldatu ondoren desgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko benetako esperientzia azaltzeko.

María José Segarra, Estatuko Fiskaltza Nagusiko Ezgaitasuna eta Adinekoak koordinatzen dituen Salako fiskal nagusiak zuzendu zituen jardunaldiak, eta egitatezko zaintzaileei buruzko azalpenak ematen saiatu ziren. Izan ere, Legea indarrean sartu ondoren, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko figura nagusia da hori, eta araua indarrean egon den lehen urtean izaten ari diren zailtasunak azaldu ziren. Laguntza judizialeko neurriak ematen dituzten erakundeek dituzten zailtasunak ere aztertu ziren.

Bereziki zaurgarriak diren adineko pertsonen ondarea galtzea saihesteko eta egoera horiek detektatzeko arrisku-adierazleak zehazteko egin zen jardueren zatirik handiena, jarduera-irizpideak argitu eta bateratzeko.

Hurkoak bere esperientzia eta antzemandako egoerak partekatu nahi izan zituen, batez ere, ondare-kudeaketari dagokionez, erakunde laguntzaile gisa. Foro horretan egoteak erakusten du Hurkoari ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak kudeatzen eta ematen dakienaren ospea eta aitortzea.



## LAGUNTZA-NEURRIAK

### PERTSONAK

593 Artatutako pertsonak

Gizonak 328

Emakumeak 265

9 ohiko arretan

80 urtetik gorakoak 134

65etik 79ra 166

50etik 64ra 188

30etik 49ra 93

29tik beherakoak 12

### FAMILIAK

Lehen kontsulta 121

Artatuak 42






## **Eguneko zentroa** **Familiantzako funtsezko laguntza** **baita asteburuetan ere**

**Hurkoako Eguneko Zentroa aitzindaria izan zen asteburuetan eta jaiegunetan arreta-zerbitzua eskaintzeko orduan. Aukera horrek eboluzionatu egin du, adineko ezinduek zaintzen dituzten familia askorentzat funtsezko baliabide bihurtzeko. Horrela,**

Maite dituzten pertsonen zaintza norberaren lanarekin, bizitzarekin eta etxearekin orekatzea funtsezko baldintza da familia askorentzat. “Beren burua zaintzean, familiek zaintza hobea eskain diezaiekete maite dituzten pertsoneri, eta ongizatea epe luzera mantendu”, azaldu du Nieves Saizek, ‘Ntra. Sra. de las Mercedes’ Eguneko Zentroko zuzendariak.

Gaur egun, Hurkoako eguneko zentroak hainbat arreta-mota eskaintzen ditu: asteko zazpi egunetan etengabeko laguntza ematea eta asteburuetako eta jaiegunetako zentroko egonaldia asteko gainerako egunetan etxeko egonaldiarekin uztartzen dituzten programak... Horrek aukera ematen diete familiei zerbitzua beren beharretara egokitzeko eta laguntza integrala emateko, senitartekoei familia-ingurunean zaindu ditzaten.

***“Beren burua zaintzean, familiek zainketa hobea eskain diezaiekete maite dituzten pertsoneri, eta ongizatea epe luzera mantendu”*** 

**Hurkoako Eguneko Zentroak aukera ematen die familiei beren buruei denbora eskaintzeko, gizarte-jardueraz gozatzeko eta atseden hartzeko, eta horrek, era berean, maite dituzten pertsoneri kalitate handiagoko arreta ematea ekartzen du.**

Maite dituzten pertsonak ingurune seguru eta estimulazailer batean artatuta daudela ziurtatzeaz gain, zerbitzu honek aukera ematen die beren familia-, gizarte- eta aisialdi-bizitzari denbora eskaintzeko. “Ondo, hobeto eta luzarago zaintzeko zaintzen naiz” filosofia bat da, eta, Nieves Saizen ustez, “luxu” txiki horien garrantzia nabarmentzen du, zaintzaileen bizitzan aldea markatzen baitute, hala nola seme-alaben partida ikustea, hondartzara joatea, lagunekin irtetea edo, besterik gabe, paseoa ematea”.

### **Profil desberdina**

Hurkoako Eguneko Zentroko asteburuko zerbitzuaren erabiltzaileen profila lanegunetakoaren antzekoa bada ere, badira alde batzuk. Oro har, asteburu eta jaiegunetan etortzen diren pertsonak demetzia eta mendekotasun larria edo mendekotasun handia duten emakumeak izaten dira. Astelehenetik ostiralera joaten diren gehienak emakumeak dira, mendekotasun maila txikixeagoa dutenak.

Erabiltzaile askok modalitate jarraitua erabiltzen duten arren, hau da, astean eta asteburuetan modu erregularran joaten diren arren, batzuk asteburuetan soilik joaten dira. Pertsona horiek ondo egokitzen dira ingurune

desberdin batean bi egun igarotzeko eta askotariko jardueretan parte hartzeko esperientziara. Zentroa ezagutu eta beren gustuen eta lehentasunen arabera diseinatutako jardueretan aritzen direnean, gustura sentitzen dira eta esperientzia aberasgarria dute. Asteburuaren amaieran beren etxeetara itzultzean, esperientzia eta oroitzen berriak dituzte bere familiarekin partekatzeko.

### Onurak

Eguneko zentroan eta familiaren etxean egoteko eredu partekatuak onura garrantzitsuak eskaintzen dizkie bai adinekoei bai zaintzaileei. Lehenik eta behin, atendutako pertsonaren bizi-kalitatea hobetzen du, ingurune seguru eta suspergarria eskaintzen baitaio, bere behar fisiko, emozional eta sozialak asetzeko. Horrek ongizate orokorrari laguntzen dio, eta zahartzearekin eta

gaixotasun kronikoekin lotutako narriadura kognitiboa eta funtzionala atzeratu dezake.

Gainera, eredu horri esker, adinekoek beren familia- eta komunitate-ingurunean bizitzen jarrai dezakete, eta horrek autonomia sustatzen du eta beren gizarte-harremanak eta lotura afektiboak babesten ditu. Aldi berean, atsedena eta lasaitasuna eskaintzen die familiei, beren bizitzako beste arlo batzuetan denbora hartzeko eta beren beharrak zaintzeko aukera emanez. Azken batean, oroka-puntu bat aurkitu behar da.

**“Asteburuaren amaieran beren etxeetara itzultzean, esperientzia eta oroitzen berriak dituzte berekin, familiarekin partekatzeko.”**

### Horrela da egun arrunt bat

Egun tipiko bat Hurkoako Eguneko Zentrora asteburuan etortzen den pertsona batentzat, garraio geltokian jasotzen hasten da edo zentrora zuzenean iristen da. Iristen direnetik, harrera abegitsua egiten zaie, eta orientatu eta egokitu egiten dira. Batzuek gosalduta egin dezakete jarduerak hasi baino lehen, eta beste batzuek, berriz, jarduerarekin bat egiten dute zuzenean, norberaren gustu eta nahietara egokitzen baita. Jardunaldi osoan, parte-hartzaileen artean autonomia eta komunikazioa sustatzen dira.

Besteak beste, jarduera hauek egingo dira: ibilaldiak musikarekin, psikomotrizitate-ariaketak, atsedeneak, otorduak beren behar dietetikoetara egokitutako menuekin, siesta, estimulazio kognitiboko jarduerak (bingoa, kantu- eta dantza-tailerrak), eta askaria etxera itzuli aurretik. Zainketa pertsonaleko oinarrizko jarduerak eta jarduera ludikoak modu parte-hartzailean egiten dira, pertsona bakoitzaren autonomia sustatuz.

Zentroan ematen den arreta integrala eta pertsonalizatua da, banakako beharrak eta lehentasunak kontuan hartuta. Gainera, harreman sozialak sustatzen dira eta ingurune seguru eta suspergarria eskaini nahi da, arreta jasotzen duten pertsonen ongizatea mantentzeko.

### EGUNEKO ZENTROA



#### Astelehenetik ostilalera

**88** Pertsona artatuak  
 Gizonak **25%**  
 Emakumeak **75%**  
 Batez besteko adina **84**  
 Mendekotasuna, neurritzkoa/larria **63%**  
 Mendekotasun handikoak **29%**

#### Asteburuan

**53** Pertsona artatuak  
 Gizonak **28%**  
 Emakumeak **72%**  
 Batez besteko adina **85**  
 Mendekotasuna, neurritzkoa/larria **71%**  
 Mendekotasun handikoak **24%**



## ‘BaTuran’ adineko pertsonen gizarte hauskortasunari aurre egiteko tresna

Hurkoa ‘BaTuran’ tresnaren erabilera bultzatzen ari da. Tresna hori Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean garatu da, adineko pertsonen gizarte-ahultasunak identifikatzen eta baloratzen laguntzeko. Hauskortasunari arreta emateko Hauskor

programaren barruan dagoen ekimen honen helburua mendekotasunaren aurreko faseetan behar duten pertsoneri laguntzeko esku-hartzeak egin ahal izatea da. Libreki deskarga daiteke ‘hurkoa.eus’ webgunetik

Azken hilabeteotan, Gizarte Zerbitzuen euskal sistemak eta adineko pertsonekin lan egiten duten hainbat erakundek ‘BaTuran’ek eguneroko jardunean eskaintzen dituen erraztasunak ezagutzeko aukera izan dute.

Hurkoa-k ‘BaTuran’ tresnaren xehetasunak eta funtzionamendua azaldu ditu Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko Gizarte Zerbitzuen zuzendaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako

Departamentuan, Donostiako, Pasaiako, Azkoitiko, Arrasateko, Azpeitiko edo Tolosaldeko udaletako gizarte zerbitzuetan...

Era berean, beste erakunde batzuk ere, Adinberri, Zabalduz, Gureak,

Zorroaga Fundazioa edo Ede kasu, adineko pertsonekin lan egiten dutenak, tresnaren erabilerarako lehen hurbilketa eduki ahal izan dute.

Hauskor programan egiten ari den lanak, gizarte-hauskortasun egoerak baloratzeko tresnaren konfigurazioarekin batera, gizarte-hauskortasun egoeretan adineko pertsonen profila ikusaraztea eta zehaztea erraztu du, prebentzioaren ikuspegitik.

Gaur egun, Hurkoa Pasaia eta Azkoitiko udalerrietan lanean ari da, non Hauskor programa ezarrita baitago, gizarte-hauskortasuna atenditzeko gizarte-, hezkuntza- eta psikosozial-arloko laguntza-zerbitzuak ematen, etxean bizi den adineko pertsonaren arreta eta zaintza lehenetsiz eta pertsona horrek bere gizarte-inguruneari lotuta jarrai dezan ahalbidetuz. Segidan, programaren abantailak zehaztuko ditugu.

### Abantailak

Gizarte Zerbitzuen sistemaren esparruan eta, batez ere, udalaren gizarte-zerbitzuetan, 'BaTuran'ek gizarte-hauskortasun egoeran dagoen adineko pertsonaren profila zehazten laguntzen du, errealitate horretan eragiten duten ardatzak eta adierazleak identifikatzen baititu.

Bakarne Etxeberriak, Hurkoako Hauskor programaren arduradunak, honako hau azpimarratzen du: "tresna horrek ematen duen balorazioa baliagarria da gizarte-laneko profesionalak egiten dituzten diagnostikoak egiteko eta, hala bada, gokio, adineko pertsonen hauskortasunaren esparruan esku-hartze sozialak planifikatzeko". Ildo horretatik, "prebentzio-ikuspegitik begirata, adinekoen bakardade, mendekotasun edo zaurgarritasun egoerak goiz detektatzeko prozesuen osagarri izan daiteke".

### Eboluzioa

'BaTuran'-en garapena Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan egin da; izan ere, Bakarne Etxeberriak azaltzen duenez, "alde batetik, hauskortasun kontzeptuari buruzko eredu teoriko baten oinarriak daude, eta, bestetik, praktikan, egoera errealean diagnostikoak eta detekzioak egiten dituen metodologia bat aplikatzea". Bere iritziz, "konbinazio horri esker, gizarte-zerbitzuek modu seguru, egoki eta eraginkorrean egin dezakete lan, gizarte-egoera berri, gero eta handiagoak eta askotarikoak gertatzen direnean".

Tresna hori etorkizunean garatzeko, egoera gehiagotan aplikatu behar da, eta lanean jarraitu behar da tresnaren egokitasuna, balio zientifiko eta aplikatua, eta baita arreta-zerbitzuak hobetzeko eskaintzen dituen aukerak hobeto ezagutzeko datu eta kontakizunak lortzeko.

## Partekaturiko tresna

'BaTuran' gizarte lanaren ikuspegitik diseinatu da, oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen eremuan esku har daitekeen hauskortasunaren definiziotik abiatuta. Hala ere, esku-hartze sozialaren eta adineko pertsonen arloan lan egiten duten profesionalen profil desberdinek erabil dezaketen tresna da.

Zenbait hilabetetan egin diren prozesu guztietan, kontraste-taldeak izan dira, gizarte-zerbitzuetako profesionalak osatuak. Talde horiek egunero jarduten dute adineko pertsona hauskorrekin hainbat arlotatik: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, hirugarren sektoreko erakundeak, Osakidetza eta hirugarren adinekoen egoitzak.

Tresna erabiltzeko, aztertzen duen dimentsio bakoitzean adierazlerik egokiena hautatu besterik ez da egin behar. Dimentsio horiek hauskortasunaren funtsezko lau alderdiei dagozkie, proiektu honetan

zehaztu bezala: eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak, sare sozialak eta parte-hartze soziala, bizi proiektua eta testuingurua.

Dimentsio horietako bakoitzean agertzen diren adierazleei esker, pertsona baten hauskortasun-mailaren balorazioa egin daiteke; balorazioa arina, ertaina, larria edo oso larria izan daiteke. Era berean, hauskortasun aurreko egoerak identifika daitezke, pertsona batek une bakoitzean euskarriak identifika ditzan.



## HAUSKORTASUNA

### Pertsona artatuak

4 kontsulta berri  
23 noizbehinkako arretan  
9 ohiko arretan



### HAUSKOR PROGRAMA

15 Arrasate  
20 Azkoitia  
26 Pasaia



# BOLUNTARIOTZA

## Bizitzak aldatzen dituen **denbora eta konpainia oparia**

**Hurkoa bezalako gizarte entitateetako boluntariotzak adinekoen bizi kalitatea hobetzeko indar handia dela frogatu du, denbora, konpainia eta zoriontasuna eskainiz. Baina boluntario berriak sartzea erronka berria da pandemiaren ondoren. Gipuzkoa gizarte-elkartasun handiko lurraldea den arren, erakunde batzuek beren jarduera zabaltzen lagunduko duten boluntario berriak sartu behar dituzte.**

Hurkoari dagokionez, boluntariotzak belaunaldi-oztopoak gainditzen ditu, eta aberastu egiten ditu bai denbora ematen dutenak bai jasotzen dutenak ere. Gainera, esanahi berezia hartzen du, bakardade-egoerei edo familiaren laguntzarik ezari egunero aurre egin behar dieten adinekoei zuzentzean. Pertsona horiei pozaren eta lagunartearen dosia injektatzeak haien bizitza aldatzen du.

Pandemiak eta adineko pertsonak babesteko beharrak Hurkoaren ingurutik urrundu zituen boluntario batzuk. Gaur egun, egoitzetan, adinekoen zentroetan eta etxe partikularretan normaltasuna bizitzara itzultzean, areagotu egiten da Hurkoaren lana zabaltzen lagunduko duten boluntarioen laguntza izateko beharra.

Paseoa, elkarrizketa atsegina, norbaiti kudeaketak egiten edo erosketak egiten laguntzea, aisialdiko uneak partekatzea... oso jarduera baliotsuak dira, lotura afektiboak indartzen dituzte eta adinekoen zoriontasuna eta

ongizate emozionala lortzen laguntzen dute. Baina boluntarioek ere asebetetze-maila sentitzen dute laguntzen duten horien aurpegian irribarrea ikustean. Bi aldeen bizitza aberastu duten benetako esperientziak eta loturak partekatzen dira.

Hurkoak boluntarioekin duen konpromisoa funtsezkoa izan da pertsona helduak baloratuak eta maitatuak sentitzeko ingurune bat ezartzeko. Erakundeak prestakuntza eta jarraipen egokiak eskaintzen dizkie boluntarioei, lana modu eraginkor eta enpatikoan egiteko beharrezko tresnak eskainiz. Gainera, Hurkoako taldeak adineko pertsona bakoitzaren beharretara egokitu diren laguntza programak sortzeko lan egiten du, esperientzia aberasgarria ziurtatuz.

Orri hauetan, boluntarioen jarduerarekin duten esperientzia partekatu nahi dugu beste gizarte-erakunde batzuekin.

# Esperientzia partekatua

## Adinkide

### Zenbat boluntario daude Adinkiden?

136 pertsona 2022an.

### Zer jarduera egiten dituzue?

Adinkide-Grandes Amigos programan gaur egun garatzen diren programak bakardadeari aurre egiteko akonpainamendu afektiboko programa; auzotar handien programa, adineko pertsoneri laguntzeko auzo-sareak sortu nahi dituen; eta, azkenik, sozializaziokoa dira, adineko pertsonen parte-hartzea sustatzen duena harreman berriak sortzeko topaketetan eta jardueretan.

eskuzabala eskainiz. Fenomeno hura, naturala eta berezkoa, jendea bere lan eta errutinetara itzuli ahala lausotzen joan zen. Eta boluntariotza, hori besterik ez bada ere, pertsoneri laguntzen dieten pertsonak, oro har hirugarren sektorean ahuldu egin da. Esan dezagun esperientzia iheskorren, kontsumo azkarraren eta errazaren gizarte batean, eta beti niaren inguruan dagoen gizarte batean konpromisoa ez dagoela modan, batez ere epe luzera denean..

Adineko pertsonetikiko boluntarioen kasuan, beste faktore bat gehitu behar da: laguntza eta laguntasuna behar duten adinekoen kopurua handitzea, hain zuzen, pandemiaren ondorioz.



### Zein da boluntarioen profila?

Boluntarioak askotarikoak dira, bai adina, bai jatorria edo kulturagatik. Adina 16 eta 91 urte bitartekoa da, eta, nahiz eta esan genezake profil arruntena 40 urte inguruko emakumearena dela, haren aniztasuna da erantzunik errealea eta gure erakundeari ongien egokitzen zaiona.

### Aldatu al da boluntarioen konpromisoa pandemiaren ondorioz?

Urruti dirudite gure etxeetan kartelak jarri zituzten egunak, eraikineko edo auzoko zaharrenei laguntza

Denbora horretan, oro har, okerrera egin du osasun fisikoak eta animoak, eta bakardade eta isolamendu handiagoa eragin du. Zaila da adineko pertsona profil horrekin inplikatu nahi den boluntariotza lortzea.

### Zaila al da pertsona berriak boluntarioen sarean sartzea?

Pandemiaren aurretik baino gehiago kostatzen ari da, batez ere, gure erakundeak epe luzera behar duen konpromisoa; izan ere, elkartu eta adiskidetasun harremanak egin behar dituzten pertsonekin lan egiten dugu.

# Hurkoak eta Aubixak zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuan hauskortasuna sartzea proposatu dute

Hauskortasun-egoeran dauden adineko pertsonen kopurua handitu egingo dela aurreikusten denez, Hurkoa eta Aubixa fundazioek hausnarketa bateratua egin dute errealitate berri horri aurre egiteko. Ekimen honen bidez zahartze osasuntsu eta autonomia bermatu nahi da, hauskortasunaren prebentzioa sustatuz, ezgaitasun eta mendekotasun egoerak ageriratzeko. Horretarako, Hurkoak eta Aubixak hainbat neurri proposatzen dituzte, hala nola hauskortasuna

Hurkoa eta Aubixaren proposamena aurrerapauso garrantzitsua da hauskortasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala emateko. Ikuspegi berritzaile eta ekintza zehatzekin, adinekoek zahartze duin, autonomo eta osasungarria izan dezaten bermatzea da helburua.

Hurkoa eta Aubixaren proposamen nagusietako bat hauskortasuna zerbitzuen zorroari buruzko dekretuan sartzea da, udalerriek hauskortasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko eta egoera bakoitzean behar duten laguntza egokia eskaintzeko beharrezko baliabideak eta tresnak izan ditzaten ziurtatzeko.

Halaber, zerbitzu soziosanitarioen sistema orokor bat sortzea proposatzen da, pertsona batek bere bizitzan zehar eska ditzakeen behar, laguntza eta arreta guztiak bilduko dituen. Zerbitzu-agenda horri esker, arreta integrala eta koordinatua eskainiko zaie hauskortasun-egoeran dauden pertsonen, haien ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko.

Hurkoak eta Aubixak arrisku-egoeren prebentzioan eta detekzioan gizarteko beste sektore batzuk inplikatzeko ere garrantzitsua dela azpimarratzen dute. Horretarako, farmazien, banketxeen, hurbileko saltokien eta komunitatean garrantzitsuak diren beste eragile batzuen sarearen parte-hartzea proposatzen dute. Aipaturiko eragile horiek inplikatzeko, hauskortasun-egoerak goiz eta eraginkortasunez identifikatu eta horietan jarduteko laguntza-sare bat sortu nahi da.

Horrez gain, inguruko hauskortasun-egoerei adi egoiteak duen garrantziaz kontzientziatu behar dira herritarak. Hurkoak eta Aubixak “radar pertsonen” proiektuak ezartzea proposatzen dute, hauskortasun-egoerak identifikatzeko eta behar den laguntza emateko antena gisa jardungo dutenak. Hauskortasun egoeran dauden pertsonen arreta eta zainketa emateko kultura sustatu nahi du ekimen honek.

zerbitzu-zorroari buruzko dekretuan sartzea, sistema soziosanitario globala sortzea, gizarteko beste sektore batzuen inplikazioa sustatzea eta biztanleak hauskortasun-egoerak identifikatzeko duen garrantzi handiaz kontzientziatzea.



*Lurdes Ubetagoiena (Aubixa) eta José Luis de la Cuesta (Hurkoa)*

Hurkoak eta Aubixak aurkeztutako proposamenak premisa honetan oinarritzen dira: adineko pertsonak, laguntza eta arreta behar duten subjektutzat hartzeaz gain, zenbait laguntza behar izan arren gara daitezkeen gaitasunak dituzten gizabanakotzat ere hartzen dira. Zahartzearen ikuspegi integrala sustatu nahi dute, adinekoen autonomia, duintasuna eta borondatearekiko errespetua aintzat hartuta.

## Aurrekariak

Hausnarketa-prozesua Hurkoak hauskortasunaren arloan egindako ekarpenekin bat dator. 2018an, Hurkoak azterlan bat egin zuen, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, “Hauskortasun-Proiektuaren Txostena” izenekoa. Haren ondorio batzuei esker, beste azterketa bat egin ahal izan zen, “Adineko pertsonen hauskortasuna Gipuzkoan” eza-gutzeko eta Pasaiaiko eta Azkoitiko herrietan ezarrita dagoen gizarte-hauskortasunaren arretarako Hauskor programa diseinatuzko.

Ildo beretik, Hurkoak ‘BaTuran’ tresna garatu du, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean, adineko pertsonen gizarte hauskortasun egoerak identifikatzen eta baloratzen laguntzeko.



## Azkoitiko adineko pertsonentzako arreta-eredu berria

**Hurkoa eta Lahar Elkargoa arduratu dira eguneko arreta-zerbitzuez eta Azkoitiko adineko pertsona ahulei edo hauskor izan daitezkeenei zuzendutako Hauskor Programa ezartzeaz. Bi erakunde horiek, aldi baterako enpresa-batasunean (Enpresen Aldi Baterako Batasuna) elkartuta, Azkoitiko Udalak bi jarduerak hurrengo bi urteetan kudeatzeko deitu duen lehiaketaren esleipendun izan dira. Lehiaketa hori gehienez ere lau urtez luzatu ahal izango da.**

Zerbitzu horien helburua hartzaileen bizi kalitatea hobetzea eta haien autonomiari eusten, ohiko ingurunean egoten eta sozializatzen laguntzea da. Esku-hartze orokor bat egin nahi da, elkarren artean lotutako jarduerekin, adineko pertsonari garapen pertsonalerako eta talde-garapenerako toki bat eskaintzen saiatuko den zerbitzu integrala eskaintzeko, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko.

Hurkoak garatu duen Hauskor programaren helburua da Azkoitiko 65 urtetik gorako pertsonekin gizarte-

hezkuntza- eta gizarte-erloto esku-hartzea egitea, zaurgarritasun, gizarte-hauskortasun edo mendekotasun arinean daudenekin. Programa honek laguntza soziohezitzailea eta banakako, familiako eta komunitateko laguntza psikosoziala eskainiko ditu. Aurreikusitako prestazioak adinekoaren etxean, egoitzetan edo komunitatearen ingurune irekian egin daitezke.

Hasiera batean, banakako esku-hartzea egingo da, gutxienez 15 pertsonarekin, baina kopuru hori egoera desberdinen arabera egokitu ahalko da. Kasu guztiak Azkoitiko gizarte zerbitzuen sistemarekin koordinatuta artatuko dira.

Eguneko arreta-zerbitzuaren eta Hauskor programaren erabiltzaileek Azkoitian erroldaturik egon behar dute, 65 urtetik gorakoak izan behar dute, mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun arineko egoeran egon behar dute (1. maila, DBZren 25 eta 39 puntu arteko puntuazioa) edo hauskortasun-, zaurgarritasun- edo bakardade-egoeran.



### Hurkoa Gipuzkoa Zainduz Foroan

Gipuzkoa Zainduz Foroaren esparruan, Hurkoak Hauskor programaren esperientzia aurkeztu zuen, bere etxean bakarrik bizi diren baina bere behar batzuk asetzeko gizarte-laguntza behar duten adineko pertsonari laguntzeko. El Diario Vascok eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako topagune horri esker, zahartzearen arloan lan egiten duten adituen eta agenteen artean eztabaida sortu zen, adineko pertsonak etxean zaintzeko politika berriak garatzeko.



## Catalina Pedrero, desgaitasunaren fiskal delegatua

Ia bi urte igaro dira legea aldatu zenetik, eta aldaketa handia ekarri die desgaitasuna duten pertsoneri. Aldaketa 'iraultzailea' Catalina Pedreroren iritziz, Gipuzkoan gai horien ardura duen fiskal delegatua. Berrikusten ari diren espedienteak eta prozedura berriak bere bulegoko mahaian pilatzen dira. Egoera guztiak lege berrira egokitzeko ahalegin handia egiten ari da, aurreikusi gabeko zailtasunak sortzen dira eta espediente guztiak eguneratzeko hiru urteko epea ia ezinezkoa da. Hala ere, Catalina Pedrero baikor agertzen da desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat irekitzen den etorkizunaren aurrean.

## *“Legeak aitortzen dizkien aukerak **bermatu** behar zaizkie desgaitasuna duten pertsoneri eta haien izatezko zaintzaileei”*

### **Lege-erreforma egin eta ia bi urtera, zein balantze egin daiteke?**

Nire balorazioa positiboa da, baina prozesu konplexua da. Desgaitasunaren arloko ikuskera Zuzenbide Erromatarraren garaikoa zen, eta ikuspegi paternalista zuen haren tratamenduan, eta ezgaitasunaren epaiak desgaitasuna duen pertsonaren heriotza zibila eragiten zuen; egoera guztiz berria da, eta berdintasunean dauden pertsona guztien gaitasun juridikoa aitortzen du. Paradigma-aldaketa hori iraultzailea da, eta maila guztietara aldatzea dakar, ez bakarrik esparru juridikoan, baita gizarte osoan ere. Beraz, balantzea positiboa da, nahiz eta aldaketara egokitzea konplikatu gertatzen ari den, batez ere, prozedurez gain pentsamoldea ere aldatzen delako, hori baita garrantzitsua.

### **Nolakoa da esperientzia?**

Egia da lege berri hau pertsona eta erakunde guztiei zuzenduta dagoela, eta dakarren beharretako bat prestakuntza

da. Legea aztertu eta horretara egokitu behar da, eta horrek gizarte osoari, sektore publikoan lan egiten dugunei eta sektore pribatuan lan egiten dutenei eragiten die, eta hor sortzen dira zailtasunak. Arlo honetan dihardugun guztiok etengabe eskatzen dugu denon, eragile juridikoen eta sektore publiko eta pribatuetan parte hartzen duten guztien prestakuntza behar hori, elkarrekin bizi diren eta desgaitasuna duen senitartekoren bat zaindu behar duten familien egoera ezberdinak errazteko.

### **Non sortzen dira zailtasun handienak?**

Ez du ezertarako balio gaitasun juridikoa aitortzeak, baldin eta, gero, edozein esparrutara jo behar dutenean, ez bada ezagutzen edo oztupoak jartzen badizkiete, batez ere banku-esparruan gertatzen ari den bezala. Fiskaltza Nagusia Desgaitasunari buruzko Salako Fiskala, Maria Jose Segarra, ahalegin handia egiten ari da sortzen ari diren oztupo guztiak gainditzeko. Gizarte Segurantzaren arloan, zirkular bat egin zen, izatezko zaintzarekin

zerikusia zuten alderdi guztiak biltzen zituena.

Hala ere, ez da gauza bera gertatzen ari beste esparru batzuetan, eta arazo ugari sortzen ari dira bankuen inguruan. Antzeko zirkularra egiten ari dira, entitateek izatezko zaintzailearen figura ezagut dezaten, beste gainerako laguntza-figurek, judizialak izanez, ez baitute arazorik.

Prestakuntzaren beharra azpimarratu nahi dut. Nik ulertzen dut finantza-erakundeen eginkizuna, pertsonen ondarea zaintzeko erantzukizuna baitute, baina, era berean, ulertzen dut desgaitasuna duten pertsonen eta beren izatezko zaintzaileei legeak aitortzen dizkien aukerak eta ahalmenak bermatu behar zaizkiela.

### **Zer arazo dituzte laguntza behar dutenek eta laguntza hori ematen duten entitateek?**

Beharrezkoa da finantza-erakunde baten aurrean jardun behar dutenek hori egiteko gaitasuna egiaztatzea, baina ezin da izan, gaur egun, familiak zein fundazioak, banku-erakundera iritsi eta, hasteko, ez dakitela legea aldatu egin dela. Horregatik da hain garrantzitsua prestakuntza. Ez du zentzurik pertsonen bizitza 'ezjudizializatu' nahi duen lege batek egoera asko eraman ditzan epaitegietara, justiziaren babesa eskatzeko.

Hain zuzen, kontuan hartu behar da zenbait jarduera edo egintza juridikok baimen judiziala beharko dutela beti: higiezin bat saldu edo erostea, iraupen luzeko errentamenduak, dohaintzak... horrek, duen garrantziagatik, baimen

judiziala beharko du beti.

Sortzen ari diren arazorik ohikoenak eguneroko kudeaketa ekonomikoarekin, diru kopuru txikiekin... zerikusia du. Espainiako Bankuaren esku-hartzearekin, bankuekin adosten saiatzen ari dira, gutxieneko kopuru bat ezartzeko, inolako eragozpenik gabe.

### **Hiru urteko epean, lege berriak Justizia behartzen du orain arteko babes-espediente guztiak aztertzea, araudi berrira egokitzeko. Nola garatzen ari da prozesu hori?**

Lanean ari garen pertsonen ahaleginarekin eta borondate onarekin ari gara aurrera egiten. Hiru urte oso epe laburra da dauden prozedura guztiak berrikusteko. Gipuzkoan bakarrik 2.000 espediente inguru daude. Lehenengo urtean familientzako epea eman zen eta ia, alderdi batek eskatuta, ez zen inolako espedienterik sustatu, hain zuzen ere informazio faltagatik. Orain ofizioz hasi da, eta ezinezkoa da, ez da amaitzen. Ez dago behar adina baliabide; beraz, uste dut luzatu egin beharko dutela.

Gainera, gaineratuko nuke, ona dela ez iristea, zeren eta, heltzen bagara, presaka ari garela izango da. Pertsonen 'heriotza zibil' hori zegoen prozedurak dira, eta orain epai guztiak berrikusi behar dira, pertsona hori nola dagoen ikusi, hobetu den ala ez... Desgaitasun bat duten pertsonen ari gara, eta ez da kontzeptu estatiko bat, eboluzionatzen duen zerbait da, eta ikusi behar da zer laguntza-behar dituzten orain.

**“Legea pertsona guztiei zuzenduta dago, eta prestakuntza-beharrak eragiten du, besteak beste”**



***“Ezin da izan, gaur egun, familiak zein fundazioak, banku-erakundera iritsi eta, hasteko, ez dakitela legea aldatu egin dela”*** ]

Fiskaltzarentzat laguntza handia dira, orain, adibidez, berrikuspen-prozesu osoan. Pertsona bakoitzaren egoerari buruzko gizarte-txostena oinarritzkoa da, haiek ezagutzen dituzte pertsonak, eta haiek bideratzen gaituzte zer laguntza-mota behar duten jakitera.

Ildo horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren lankidetzaren nabarmendu nahi dut. Alde horretatik, lurraldearen errealitatea positiboa da, ondo funtzionatzen du eta pertsonak ondo zainduta daude.

#### **Merezi ote du ahaleginak?**

Konbentziturik nago. Izan ere, merezi du. Eta nabarmendu nahi nuke gurekin lankidetzan ari diren erakundeen laguntza eta jarrera ona, eta, kasu honetan, Hurkoa edo Gertuan fundazioei buruz ari naiz, gure kasuan. Azpimarratzekoa da pertsonen eta haien familiei ematen dieten arreta. Arreta hori, familiei eta desgaitasuna duten pertsonen ematen dieten segurtasuna, legeak ematen zizkien ahalmenekin egin dute lehenago, egiten ari dira eta, zalantzarik gabe, egiten jarraituko dute.

***“Sortzen ari diren arazorik ohikoenak eguneroko kudeaketa ekonomikoarekin lotuta daude”*** ]

